



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades e
Investigación
Dirección de Investigación

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2018ko abenduaren 18koa, 2018-2019 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2018ko maiatzaren 2ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Ikerketa Orokorrean, eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2018-2019 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 32. artikulua zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz.

Bostgarrena.- 2018ko maiatzaren 2ko agindua xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 18an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea